

EUSKALTZAINDIKO URGAZLE BERRIAK

Jacques Allières.—Agrégré à l'Université de TOULOUSE (France).

Jose Arteche.—Biblioteca de la Diputación Provincial de Guipúzcoa.—SAN SEBASTIAN.

Pierre Duny Pétré.—"Héguitoa".—SAINT JEAN PIED DE PORT (B. P.) (France).

Juan Maria Lecuona, Pbro.—Seminario de Saturrarán.—MOTRICO (Guipúzcoa).

R. P. Gabriel Lerchundi.—Abbaye Notre Dame de Belloc.—URT (B. P.) (France).

EUSKALTZAINDIKO KARGU BERRIAK

Jose Maria Lojendio jauna buruzagi izendatu zan 1963 urtea bukatu arte.
Geroago:

Luis Mitxelena segretario.

Alfonso Irigoyen segretario bigarrena.

Aita Lino Akesolo bibliotekazain.

Eusebio Erkiaga diruzain.

JON ETXAIDE 1962 URTEKO DOMINGO AGIRRE NOVELA-SARIAREN IRABAZLE

Bizkaiko Aharro Kaxak Euskal Akademiari lagunduaz sortua duen Domingo Agirre novela-sariaz erabakitzeke juradua bildu da eta ao batez "Gorrotoa lege" titulua duen novelari ematea pentsatu du. Bere egillea Jon Etxaide da, gizon oso ezaguna. Juradua osatu dutenak dira: Antonio Arrue, Aingeru Irigaray, Jose Antonio Loidi eta Alfonso Irigoyen jaunak.

Jon Etxaide oso estimatua da euskal letren inguruan dabilzanean artean eta orainarte beste merezimentu-sari batzuek ere irabazi ditu eta baita zenbait obra argitaratu ere. Orain artzen duen sari onek bere ospea aundiago egi-ten du.

Datorren urterako Toribio Alzaga teatro-sarira deitzen da. Oñarriak orain-arteokoak bezelakoak izango dira eta obrak bialtzeko epea 1963 uztaillaren 20-an bukatzen da. Domingo Agirre novela saria 1964 urtean emango da berriz. Urte ortan dira izan ere eun urte Domingo Agirre jaio zala.

Sortua dagoen zortzi milla pezetako literatura saria urte guztietan ematekoa da eta batean teatro-jenerokoari tokatzen zaio eta bestean novelakoari.